


Zuzenbide Penal minimoa

FERRAJOLI, Luigi



Iturria: <http://www.trotta.es/>

Ferrajolik "Zergatik zig-ortu?" galderak planteatzen dituen arazo zientifiko zein filosofikoei aurre egiten die klasiko bat den lan honetan. Berme-pentsamolde-tik abiatuta, zigorra bidezkoitzen duten ideologia eta filosofiaren inguruko azterketa sendo eta argia burutzen du, biktimaren, delitugilearen, Estatuaren eta gizarte osoaren ikuspegiak eta interes-sortak agerian utziz eta delitua, Estatuaren gehiegikeria eta biktimen mendekua ahalik eta gutxi-iena izan daitezen proposamen zehatzak eginez.

Giltza-Hitzak: Zigorraren helburuak. Aurrezaintza eta ordainketaren teoriak. Garantismoa.

Ferrajoli se enfrenta en este ya clásico trabajo a los problemas tanto científicos como filosóficos que plantea la pregunta "¿Por qué castigar?". Partiendo de una mentalidad garantista, realiza un análisis consistente y diáfano en torno a la ideología y filosofía que justifica el castigo, dejando al descubierto los puntos de vista y el conjunto de intereses de la víctima, del delincuente, del Estado y del conjunto de la sociedad, realizando propuestas concretas para que el exceso del Estado y la venganza de las víctimas sean los menores posibles.

Palabras Clave: Objetivos del castigo. Prevención y teorías de la reparación. Garantismo.

Ferrajoli affronte, dans ce travail déjà classique, les problèmes aussi bien scientifiques que philosophiques que pose la question «Pourquoi punir?» En partant d'une mentalité garantiste, il réalise une analyse consciente et diaphane de l'idéologie et de la philosophie qui justifie la punition, en laissant à découvert les points de vue et l'ensemble des intérêts de la victime, du délinquant, de l'Etat et de l'ensemble de la société, réalisant des propositions concrètes pour que l'excès de l'Etat et la vengeance des victimes soient les moindres possibles.

Mots Clés: Objectifs de la punition. Prévention et théories de la réparation. Garantisme.

1. Zigorraren doktrinak, teoriak eta ideologiak

“Zergatik zigortu?” galderaren inguruan sortu izan diren eta oraindik ere badiraute hainbat gaizki-ulertu argitu ahal izateko, derrigorrezkoa da, lehenik eta behin, galdera horren *esanahi* posibleak aztertzea, ondoren galderari maila ezberdinetatik eman dakizkiokeen erantzunak argitzeko.

Izan ere, “zergatik zigortu?” galdera bi era ezberdinetan uler daiteke: alde batetik, zigorra zergatik existitzen denaren edo *zergatik zigortzen denaren* zentzua izan dezake; bestalde, zigorrak zergatik existitu behar duenaren edo *zergatik zigortu behar denaren* zentzua ere izan dezake.

Lehenengo zentzuak arazo *zientifiko* bati egiten dio erreferentzia. Horregatik, galderak ametitzen dituen erantzunak izaera historiografiko edo soziologikoa duten proposizioak izango dira, zeinak egiaztagarri diren heinean, egiazkotzat edo faltsutzat hartuak izan daitezkeen. Azken batean, “zergatik zigortzen da?” galdera, zigorraren *funtzioa* deskribatzen duten teoriez arduratzen da.

Bigarren zentzuari dagokionez, izaera *filosofikoa* duen arazo baten aurrean geundeke. Beraz, “zergatik zigortu behar da?” galderak onartuko lituzkeen erantzunak ez lirakeke “egiazkotzat” edo “faltsutzat” har daitezkeen proposizioak. Aitzitik, izaera etiko-politikoduna duten proposizio normatiboak lirakeke erantzun posibleak, zeinak “onargarriak” edo “onartezinak” izango diren, teorikoki balio zehatz batzuekin bat datozenaren arabera. Hau da, bigarren zentzu honek zigorraren *helburuaren* doktrinak izango lituzke aztergai.

Hain zuzen, “zergatik zigortu?” galderari ematen zaizkion erantzun askotan ikusten den akats metodologiko bat, zigorraren “funtzio” eta “helburua” nahasten dituztela da, hau da, ez dituztela elkarrengandik bereizten zigorrak “izan behar duena” eta “dena”. Nahasmen horrek dakarren ondorioetako bat zera da: zigorraren teoria soziologikoen defendatzaileek, zigorraren helburutzat hartzen dituztela zigorraren funtzioak. Hau da, zigorra benetan denaren inguruko azalpenen oinarrian (kalte bat dela, edota delitugilea estigmatizatzen duela), zigorrak helburu horiek bete beharko lituzkeela ondorioztatzen dute (kalte bat izan behar duela eta delitugilea estigmatizatu behar duela, alegia).

Zigorra bidezkatzen duten doktrina filosofikoen defendatzaileek ere akats berbera egiten dute, alderantzizko moduan bada ere: hauek zigorrak bete beharko lituzkeen helburuak zigorrak errealitatean betezen dituen funtziotzat hartzen dituzte, helburu horiek teoria bihurtuz. Honela, zigorra delitugileak eragindako kaltearen ordain edo konponketa dela diote, zigorrak kaltearen ordain edo konponketa izan beharko lukeela esan ordez –ordainketaren *teoria* deitua–; edo zigorrak kolektibitateari etorkizunean delituak burutzeko asmoak kentzen dizkiola, asmoa kentzearen helburua duela baieztatu ordez –aurrezaintza orokorraren *teoria* deitua–; edo zigorrak delitugilea bergizarteratzen duela, helburu hori duela onartu ordez –aurrezaintza bereziaren *teoria* deitua–.

Funtsezkoa da zigorra bidezkatzen duten helburuen inguruko tesi hauek teoriak ez direla argitzea –“teoria” terminoak izaera deskribatzailea baitu–, *doktrina normatiboak* baizik, zeinak baloreetan oinarrituz onartu edo bazter daitezkeen. Egitateen behaketan oinarrituz egiten diren baieztapenak, aldiz, *teoria deskribatzaileak* izango dira, historiografiak eta soziologiak zigorraren funtzioaren inguruan ematen dituzten datu enpiriko egiaztagarriak eskaintzen dituzten heinean.

Bereizketa hau eginda, Ferrajolik *ideologia* izendatzen ditu “izan behar duena” eta “dena” nahasten dituzten teoria zein doktrinak. Izan ere, ideologiek “Hume-n legea” bezala ezagutzen den printzipioa hausten dute, zeinaren arabera ezinezkoa den logikaren bidez premisa deskribatzaile batetik ondorio edo premisa moral edo arautzaile batera iristea, eta alderantziz. Eta, zehazkiago, *ideologia naturalistak* edo *errealistak* “izan behar duena” “denetik” ondorioztatzen dutenak lirakeke, hau da, azalpen enpirikoak direnak justifikazio teorikotzat hartuz, “falazia naturalista” delakoan erortzen direnak. *Ideologia normatibistek* edo *idealistek*, aldiz, aurkakoa egiten dute: “izan behar duenetik” errealitatean “dena” ondorioztatuz, justifikazio teorikoak direnak azalpen enpirikotzat hartzen dituzte, “falazia normatibista” delakoan eroriz.

Zuzenbide penalaren meta-analisi filosofikoaren eginbeharretako bat, bi ideologia mota hauek identifikatu eta ekiditea da, doktrina normatiboak eta teoria deskribatzaileak berezita mantenduz. Era horretan bakarrik saihestu ahal izango da biak elkarri legitimatzea edo desbaloratzea.

2. Justifikazioaren doktrinak eta justifikazioak. *A posteriori*-ko justifikazioa eta bere baldintza metaetikoak

Dagoeneko agerian jarri dugu teoria deskribatzaileak eta doktrina normatiboak asimetrikoak direla. Izan ere, lehenengoen izaera deskribatzailea duten bitartean, bigarrenen helburu direktibo edo zuzentzaile bat dute. Gainera, azaldu den bezala, “Hume-n legean” oinarrituz, ezinezkoa da tesi arautzaile batetik tesi deskribatzaile bat ondorioztatzea, eta alderantziz. Beraz, teoria deskribatzaile bat egiaztatu edo kontraesan ahal izateko, errealitatean gertatzen dena behatu beharko da, eta, horren arabera, benetan gertatzen den hori teoria deskribatzailearekin bat datorren edo ez aztertu. Baina, edozein kasutan, agerian dago ezin izango dela iritzietatik ateratako argudio normatiboen bitartez tesi deskribatzaile bat egiaztatu edo kontraesan, alderantzizkoa ere ezinezkoa den bezala –ikerketa enpirikotik jasotako datuen bitartez ezin izango da doktrina normatibo baten alde edo aurka argudiorik eman, horretarako doktrina hori balio zehatz batzuekin bat datorren edo ez ikuskatu behar baita–.

Doktrina abolizionistek, sarritan, ez dituzte gogoeta hauek kontuan hartzen, eta zigorraren bidezkoze doktrinek egiten dituzten akats berdinak burutzen dituzte. Honela, zigorrak atxikitzen zaizkion bergizarteratze edo delituak ekiditeko helburuak betetzen ez dituenaren oinarrian –hau argudio deskribatzaile bat izanik–, abolizionistek bidezkoze doktrinen tesi normatiboak kontraesaten dituzte –zigorraren helburuak bergizarteratzea edo delituak ekiditea izan behar duela, alegia–, eta, era horretan, beraien kritikak ere falazia naturalistan erortzen dira.

Agerian dago zigorraren doktrina bidezkozaileek zigorrari atxikitzen dizkioten helburu batzuk ez direla enpirikoki lortzen (adibidez, delitu oro sahiestea). Dena den, hori Zuzenbide Penalari zuzendu behar zaion kritika bat da, eta ez bidezkoze doktrina normatiboari. Hau da, Zuzenbide Penalaren praktika zigortzaileak dira kritikatu behar direnak, hauek helburu batzuk bete daitezzen justifikatu direlako, zeinak, azken batean, bete gabe geratzen diren.

Dena den, arazoa da zigorraren bidezkoze doktrinak, maiz, Zuzenbide Penalaren *ideiaren* edo zigorraren *ideiaren* justifikazio gisa aurkeztu izan direla. Hau da, doktrina normatibo batek, zigorra bidezkozeko irizpide bezala, honek bete beharko lukeen helburu bat nabarmentzen badu –adibidez, bergizarteratzea–, sarritan ateratzen den ondorioa zera da: zigorrak edo ordenamendu penal zehatzak, benetan helburu hori betetzen duten heinean, *a priori* bidezkozuta gelditzen direla. Agerian geratzen da berriro ere falazia normatibista baten aurrean geundeekeela. Izan ere, justifikazioak *a posteriori* soilik eman daitezke, behin helburu bidezkozaileen eta benetan betetako funtzioen arteko egokitzapena egiaztatu ondoren. Justifikazio bat aprioristikoa denean, hau da, bidezkozuta duten egitateak behatu gabe ematen bada, orduan ideologia normatibista edo *idealista* baten aurrean geundeeke.

Orain arte azalduko guztia kontuan izanda, zigorra bidezkozeko eredu baten baldintzak, aipaturiko falazia naturalista zein normatibistak alboratzeko aukera ematen dutenak, bi izango lirarteke, Ferrajoliren aburuz:

Lehena, helburu penal bidezkozaileen eta justifikatzeke dauden baliabide penalen balorazioan datza. Helburuak derrigorrean *ondasun estrajuridiko* edo Zuzenbideaz kanpokoa izan beharko du, Zuzenbide Penalaren eta zigorraren autojustifikazioak ekiditeko. Baliabideari dagokionez, aldiz, kalte bat dela arrezagutu beharko da –hau da, gizakientzako eta gizartearentzako kostu bat–, bereziki arrazoi horrengatik bidezkozuta beharrekoa. Azken batean, zigorraren bidezkoze doktrina tinko batek Zuzenbide eta moralaren arteko bereizketa argia suposatzen du. Ondorioz, delitua ez da bere baitan kaltetzat hartuko, eta ezta zigorra ondasun edo baliozkat. Honen arabera, zigorra

bidezkotzeak debeku penalak bidezkotzea ere suposatu beharko du. Honela, zigorra justifikatzea posible izan dadin, derrigorrezkoa izango da penalki babestu beharreko ondasun materialen inguruan izaera prebentiboa duen arrazoitze etiko-politiko bat.

Bigarren baldintza, baliabide eta helburu penalen arteko harremanean datza. Baliabideek helburuekiko koherenteak izan behar dute, hau da, Zuzenbide Penal bidezkotzen duten helburuak enpirikoki zigorraren bitartez lortu ahal izango liriteke, baina zigorrik gabe ez. Gainera, eragiten den kalteak egokia izan beharko du helburu bezala lortu nahi den onurerekiko, erabilitako baliabideraren beharraz gain, bere izaera eta neurria ere bidezkotu ahal izateko.

Bi baldintza hauek betetzen dituen eredu batek, sistema penala bidezkotzeaz gain, kontrakoa ere egin dezake, hau da, zigorrak eta sistema penalak ez-bidezkotu, aipaturiko baldintzak beteko ez balira.

3. Ideologia bidezkotzaileak. Utilitarismo penalaren anbi-balentzia: zorion maximoa edo sufrimendu minimoa

Pentsamendu penalaren historian zehar zigorra bidezkotzeko erabili izan diren doktrinei so egiten badiegu, ideologikoak direnaren ondorioa iritsiko gara, arestian aipaturiko akatsen batengatik. Honela, zigorra delituaren bitartez eragindako kalteagatik ordaina dela baieztatzen denean (doktrina absolutuak), edo zigorrak delitugilea bergizarteratzen duela esaten denean (doktrina zuzentzaileak), ideologia hutsen aurrean geundeke, ez direlako “izan beharko lukeena” eta benetan “dena” bereizten, hain zuzen ere.

Gainera, bi doktrina hauetan agerikoa da ez dela proposatutako ereduaren lehenengo baldintza betetzen. Izan ere, ez bata ez besteak ez dituzte debekua eta zigorra helburu estrajuridikoen bitartez bidezkotzen eta, are gehiago, zigorra bera ondasuntzat hartzen da, bere baitango helburu bezala. Argi dago ikuskera hauetan guztietan Zuzenbidearen eta moralaren arteko nahasmen bat antzematen dela: doktrina absolutuek balio moral bat arrezagutzen diote hautsi den arauari, eta, ondorioz, zigorra bidezko ordain eta lortu beharreko helburu bihurtzen da. Honela, zigorraren ordain izaeratik abiatuz –zeina egitate bat den–, zigorrak izaera hori ere izan behar duela ondorioztatzen dute, era horretan falazia naturalista batean eroriz.

Doktrina zuzentzaileak –zigorraren bitartez kondenatuaren bergizarteratzea lortzen dela baieztatzen dutenak–, ordea, ideologia normatibistak dira, zigorrari helburu etiko bat atxikitzen diotenak eta hura egiazkotzat asumitzen dutenak, nahiz eta helburu hori errealitatean ez bete edo beteezina izan. Beste hitzetan, esan liteke falazia nomatibista batean erortzen direla.

Aurrezaintza orokorraren doktrinen inguruan, ordea –etorkizunean delituak prebenitzeko Zuzenbide Penalaren eskuhartzea bidezkotzen dutenak–, ezin da gauza berbera esan. Izan ere, doktrina hauei, aurreko biei ez bezala, bitarteko penalak –kalteak kontsideratzen direnak– eta hauek bidezkotzen dituzten helburu penalak bereizteko meritua arrezagutu behar zaie. Bereizketa hau derrigorrezkoa suertatzen da, alde batetik, zigorrak suposatzen duen kostua eta zigorrak ekidin behar dituen kalteen arteko oreka lortzeko. Bestalde, bereizketa hau eginez, Zuzenbidearen eta moralaren arteko nahasmenaren ondorioz gerta daitekeen bitarteko penalen auto-bidezkotzea ekiditen da. Bereizketa honek, gainera, debeku penala zigorra baino lehen bidezkotzea baimentzen du, Zuzenbide Penatik eta zigorretik kanpo dauden helburuetan oinarrituz.

Utilitarismoa, azken batean, beharrezkoak ez diren zigorrak eskuditzen dituen heinean, ustezko arrazoi moralen bitartez justifikatu ordez, zigorra bidezkotzeko doktrina arrazional oren oinarria da, eta baita Estatuaren zigortzeko ahalmenaren mugena ere. Horregatik, utilitarismoa ondo ulertzen da XVII. eta XVIII. mendeetatik aurrera garatu zen pentsamendu liberal eta laikoaren testuinguruan, zeinaren baitan sustraitu baitziren Zuzenbide Estatuak eta Zuzenbide penal modernoa. Honela, pentsamendu penal erreformatzailea bat dator kalte penalak ordaindu beharreko kostuak direla esatean, hiritarrei kalte handiagoak ekidin ahal izateko, eta ez direla etikari, erlijioari edota mendeku nahiari egiten zaizkion eskaintzak.

Nahiz eta utilitarismoa beharrezkoa izan, ez da nahikoa maila meta-etikoan zigorra legitimatzeko edota deslegitimizatzeko irizpideak oinarritzeko. Ondorioz, honen aurrean planteatzen diren galderak ondorengoak dira: zeintzuk dira Zuzenbide Penalak dakartzan onurak eta zeintzuk eragiten dituen kalteak? Noren onurari egiten zaio erreferentzia? Ferrajoliren esanetan, galdera hauei ematen zaizkien erantzunen arabera egokitu ahal izango zaie zigorrak suposatzen duen kostua helburu bezala identifikatutako onurei. Eta era berean, horrela finkatu ahal izango dira zigorra bidezkoak duten mugak eta baldintzak.

Utilitarismoa doktrina anibalente bat denez, bi bertsio edo ikuspuntu ametitzen ditu. Lehenaren arabera, zigorraren helburua desbideratzen ez den –hau da, arau penalak errespetatzen dituen– gizartearen gehiengoari onura maximoa ziurtatzea litzateke. Bigarren bertsioaren arabera, aldiz, helburua desbideratzen den gutxiengoari ahalik eta kalterik txikiena eragitea litzateke.

Agerian dago lehen bertsioak gizartearen segurtasunari bakarrik begiratzen diola, zigorra aplikatuko zaien interesei –interes desberdinei– so egin gabe. Honek ezinezkoa bihurtzen du kostu eta onuren arteko konparaketa, onura jasotzen dutenak eta kaltea pairatzen dutenak bi talde ezberdin direlako. Gainera, ikuspuntu honen arabera, ez dago Estatuaren zigortzeko ahalmenari mugarik jartzerik, gehiengoaren ongizatea bermatzeko erabil daitezkeen baliabideak astunenak ere izan daitezkeelako, tortura eta heriotza zigorra barne. Utilitarismo mota honek ez luke arbitrariotasunaren kontrako inongo bermerik emango.

Bigarren bertsioak, aldiz, zigorraren helburua kalte hori pairatzen dutenekin erlazionatzen du. Honakoek, zigor penalaren ezean, hau baino handiagoak diren kalteak jasan ditzakete, mendeku bezala. Utilitarismoaren ikuspuntu honek baimendu egiten du bi kalte moten (kalte penala eta estrapenala) eta erabilitako bitarteko penalen arteko konparaketa, eta Zuzenbide Penalak soilik bidezkoak duen, honen eskuhartzea beharrezko minimora mugatzen baldin bada, bai zigorrei dagokienez, eta baita debekuei dagokienez ere.

Nahiz eta pentsamendu iluministan ikuskera honen adierazpenak arkitu Montesquieu, Beccaria eta beste hainbaten idazkietan, XIX. mendetik aurrerako doktrina utilitaristek ildo hau alde batera utzi eta Zuzenbide Penal “maximoaren” eredu zuzentzaile eta larderiazko baten alde egin zuten. Honen arabera, Zuzenbide Penalaren eskuhartzearen oinarrian irizpide hau aurki dezakegu: “ongizate handiena, gizabanako kopuru handienaren artean zatitua”.

Ikuskera honetan oinarrituz, doktrina utilitarista guztiek zigorrari atxiki izan dioten helburu bakarra, etorkizunean delituak ekiditea da, hau da, hauei aurrea hartzea. Era horretan, babestu egiten da desbideratzen ez den gizartearen gehiengoa, baina desbideratzen den gutxiengoa, aldiz, ez da gehiegizko zigorretatik edo zigor arbitrarioetatik babestuta suertatuko. Aitzitik, delitugileak neutralizatzea edo zuzentzea eta pertsona orori delitua egiteko asmoa kentzea –zigorrak suposatzen duen mehatxuaren bitartez eta askatasun-gabetzearen bitartez– izan dira utilitarismo penal klasikoak zigorra justifikatzeko aipatu izan dituen helburuak. Horregatik, doktrina hauek, zentzu zabalean, “defentsa sozialaren” doktrinak izendatu izan dira.

Baina aipaturiko helburu bidezkoak horiek kanpoan uzten dutenez gutxiengo desbideratua, hauen interesei so egin gabe, neurtezin bihurtzen dituzte baliabide eta helburuak, eta, era berean, arbitrario bihurtzen dute baliabideak bidezkoak. Beraz, ez da betetzen Ferrajolik proposatutako ereduaren bigarren baldintza.

4. Utilitarismo penal erreformatu bat. Zuzenbide Penalaren helburu bikoitza: delituen aurrezaintza eta zigor informalaren aurrezaintza

Doktrina bidezkoakileen akats ideologikoak proiektu abolizionistek ikuspuntu desberdinetatik argudioak ematen ari zirela zirudien. Hauen arabera, Zuzenbide Penalaren desagerpena sustatuko litzateke, inongo bidezkoak ez lukeelako, ezeztatu egiten delako hark ekar ditzakeen onura edo abantailek eragiten dituen saminak bidezko

ditzaketeenik. Horregatik, doktrina abolizionistek erantzun penalaren izaera zigortzailea baliabide pedagogikoekin edota kontrol mota informalekin ordezkatzearen beharra azpimarratzen dute. Izan ere, ukaezina da doktrina bidezkozaileek proposatzen dituzten helburuek ez dutela zigorrak suposatzen duen indarkeria antolatu eta programatua justifikatzen.

Arrazoi hauek proiektu abolizionista bat bidezkoetzeko nahikoa ez diren arren, Ferrajoliren esanetan bi meritu arrezagutu behar zaizkie doktrina abolizionistei. Alde batetik, orainaldiko gizarteari egiten dioten kritikan oso ondo bereizten dituztela justizia instantzia etikoak eta indarrean dagoen Zuzenbide positiboa, eta, horrela, kontrajarri egiten dituztela biak. Kontrajartze hau bi eremutan gauzatzen da. Alde batetik, ordenamendu juridikoen edo haien zatien deslegitimazioan, eta bestetik, delituak zigorren aurretik bidezkoetzeari. Izan ere, abolizionistek delitua burutzerat eramatean duten arrazoi sozial edo psikologikoak aipatzen dituzte, eta baita hura legitimatzen duten motibazio politikoak ere. Gainera, delitu batzuek lesionatzen dituzten interesen ilegitimotasun moralak ere aldarrikatzen dute. Azken batean, ikuskera abolizionistak, zigorra pairatzen duenaren alde kokatzen den heinean, kriminologia kritikoa eta desbideraketaren jatorri kultural eta sozialaren inguruko ikerketak sustatu ditu, penalki babestuta dauden interesen erlatibotasun historiko eta politikoa bezala. Baina, batez ere, filosofia eta zientzia penal ofizialaren ilegitimotasunaren oinarri moralak agerian uztea lortu du, beste edozein doktrinak ez bezala.

Doktrina abolizionistei aurreikusitako behar zaien bigarren merituak izaera metodologikoa du. Zuzenbide Penalak kanpoaldetik deslegitimatu, eta bere arbitrariotasun eta samina salatuz, abolizionistek Zuzenbide Penalak justifikatzen dutenen gainean uzten dute berau bidezkoetzeari zama. Frogaren zama alderantzizkatzea, Ferrajoliren esanetan, zigorra justifikatzeko aipaturiko gainontzeko baldintzei gehitzen zaie. Honela, Zuzenbide Penalak osatzen duen produktu artifizialarentzako justifikazioek erantzun mamitsu bat eman beharko diote hipotesi abolizionistei. Horretarako, bi gauza frogatu beharko dira: alde batetik, Zuzenbide Penalak eragiten dituen kalte eta saminak, sortzen dituen onurak baino gutxiago direla, eta bestetik, berdina esan daitekeela zigorrei buruz, debekuei buruz, eta baita Zuzenbide Penalak egiaztatzekeo teknikei buruz ere.

Hau guztia kontuan izanda, Ferrajolik eredu bat proposatzen du, aipatutako baldintzak betetzen dituen, eta, aldi berean, abolizionisten kritikei erantzuna emateko gai dena.

Agerian jarri dira utilitarismo maximoak ekar ditzakeen kalteak: gehiengoaren ongizateari bakarrik begiratzen bazaio, erraza da Zuzenbide Penalak auto-legitimazioan erortzea, autoritarismoan murgilduz eta Zuzenbide Penalak maximorantz joz. Gainera, Zuzenbide Penalaren kalteak gizabanako talde bati zuzenduak daude (desbideratzen direnei), eta bere onurak, aldiz, beste talde bati (desbideratzen ez direnei). Honek ezinezkoa bihurtzen du bitarteko penalak –lehenengo taldeari zuzenduak– helburu penalaren bidez –bigarren taldeari zuzenduak– alderatzea eta etikoki justifikatzea.

Hortaz, derrigorrezkoa da bigarren parametro utilitario bat erabiltzea Zuzenbide Penalaren mugak finkatzeko eta berau bidezkoetzeari duen doktrina egoki bat oinarritu ahal izateko: desbideratzen ez den gehiengoaren ongizate gorenaz gain, beharrezkoa da desbideratzen den gutxiengoari ahalik eta kalte gutxiena eragitea. Bigarren parametro honek bigarren helburu bidezkoetzeari bat proposatzen du, hain zuzen ere aurrezaintza mota berri bat, ez delituena, baizik eta beste gaitz batena: zigor penalaren ezean, biktimak edo berarekiko elkartasuna sentitzen duten erakunde edo indar sozialek izan lezaketen erreakzio handiagoa (basatia, informala, arbitrarioa, zigortzailea, baina ez penala) galaraztean datza. Ferrajoliren ustez, kalte hori ekiditea da Zuzenbide Penalaren helburu gorena. Hau da, zigor penalak ez du bidezkoetzeari ez diren delituak galaraztekeo bakarrik balio, baizik eta baita bidezkoetzeari ez diren bestelako zigorrak ekiditekeo ere. Zigorrak, beraz, ez du biktima bakarrik babesten, baizik eta delitugilea ere babesten du erreakzio informal publiko edota pribatuetatik. Ikuspuntu honetatik abiatuta, “beharrezkoa den zigor kopuru minimoa” ez litzateke bitarteko huts bat, baizik eta baita helburu bat ere: delituenganako indarkeriazko erreakzioak gutxitzean datzan helburua, hain zuzen.

Helburu hau, aldi berean, egokia da zigor penalaren maximoa finkatzeko, zeinaren gainetik ezingo litzatekeen zigor informalen ordezkapena bidezkotu.

Zigorraren helburu hau tradizio iluministak aipatu badu ere, nahasi egiten da zigorraren jatorri eta funtzio historikoaren teoriarekin. Zigorra, iusnaturalistei eta kontraktualistei jarraiki, sozializazioaren eta mendeku pribatuaren estatalizazioaren produktu bat izango litzateke, zeina gizabanako orok “defentsarako” duen eskubidearen adierazpen bat den. Hain zuzen, ideia honetan oinarritu izan da zigor penalaren eta mendekuaren arteko jarraitasun historiko eta teorikoaren tesia, eta utilitarista askok ikusi izan dute Zuzenbide Penal norberaren defentsarako garatutako eta perfektionatutako Zuzenbide Natural bezala.

Ferrajolik ezeztatu egiten du tesi hau, eta Zuzenbide Penalak mendekuarekiko garapena suposatzen duela baieztatzen du. Izan ere, Zuzenbide Penal mendekuaren eten bezala eta tresna kontrajarri moduan jaiotzen da, eta mendekua ekiditeko baliabide bezala justifikatzen da. Are gehiago, Zuzenbide Penalaren eta zigorraren historia mendekuaren kontrako borroka luze bat bezala irakur liteke. Historian zentzu honetan eman zen lehen pausoa, mendekua eskubide-betebehar pribatu bezala erregulatu zenekoa genuke, biktimaren eta bere sendiaren eremutik kanpo, odolaren mendekuaren eta talioiaren legearen printzipioen arabera. Bigarren pausoa, askoz ere erabakigarriagoa, epailearen eta alderdi kaltetuaren arteko bereizketa gauzatu zenean eman zen, justizia pribatua debekatuz (dueluak, lintxamenduak, exekuzio azkarrak eta kontu-garbitze pribatuak). Une horretan jaiotzen da Zuzenbide Penal, delitugile/biktima aldeko harremana hiru aldeko harreman batekin ordezkaturik denean, epaile inpartziala izanik hirugarren hori. Horregatik, epaile batengan mendeku, partzialitate edo babes sozialaren kutsua ikusten bada, edo Estatuak partikularren arteko justiziari esparruren bat uzten badio, hori guztia Zuzenbide Penal egoera basati batera itzuli denaren seinale izango da, zibilizazioaren sorrera baino lehenagoko egoera batera, hain zuzen ere.

Aipatutakoak ez du esan nahi aurrezaintza orokorra Zuzenbide Penalaren funtsezko helburu bat ez denik. Aitzitik, esan nahi duena da Zuzenbide Penalak aurrezaintza funtzio bikoitza bete behar duela: bat negatiboa –hau da, etorkizunean delituak prebenitzea–, eta bestea zigor pribatu, arbitrario eta ez proportzionalen aurrezaintza orokorra. Lehen funtzioak zigor minimoaren zenbatekoa erakusten du, eta bigarrenak, aldiz, zigor maximoaren muga. Dena den, bigarren helburu hau askotan ahaztu egiten da, Ferrajoliren aburuz garrantzitsuena bada ere. Izan ere, nahiz eta Zuzenbide Penalaren egokitasuna argia izan neurri batean lehenengo helburu hori betetzeko, askoz argiagoa da bere egokitasun eta beharra bigarren helburu hori betetzeko, nahiz eta horretarako zigor ez astun bat edota sinboliko bat ezartzearekin nahikoa izan.

5. Zuzenbide penal minimoa, oinarritzko eskubideak babesteko teknika bezala. Lege penal, ahulenaren lege bezala

Aipaturiko aurrezaintza helburu bikoitz horretatik abiatuta, Zuzenbide Penalaren helburu orokorra gizartean indarkeria gutxitzea litzateke, indarkeriaren baitan bai delitua eta bai mendekua barnebildu behar direlarik. Izan ere, delitua edo mendekua gertatzen direnean, indarraren bitartez konpontzen den gatazka bat gauzatzen da: lehen kasuan delitugilearen indarkeriaren bitartez, eta bigarrenetan, berriz, delituaren biktimaren indarkeriaren bidez. Agerian dago bi kasuetan ageri den indarkeria hori arbitrarioa eta kontrolik gabea dela, eta ez soilik delituari dagokionez. Izan ere, mendekua bera, izatez, ez-ziurra, ez-proportzionala eta ez-erregulatua da, eta, batzuetan, errugabe baten aurka zuzendua gainera.

Ikuspuntu honetatik abiatuz, argi dago Zuzenbide Penalaren helburua ez dela delituak suposatzen duen mehatxuaren aurrean “gizartearen defentsaren” interesa babestea bakarrik. Helburua, aitzitik, ahulena indartsuenarekiko babestean datza –ahula, bai delituarekin mehatxatua edo kaltetua zein mendekuarekin mehatxatua edo

kaltetua izan liteke—. Eta ahulena indartsuenaren indarkeriagatik babestu nahi bada, zera ondoriozta liteke: oinarrizko eskubideak direla *ondasun* bezala kontuan hartu beharreko parametroak Zuzenbide Penalaren eremua eta mugak finkatzeko, eta justifikaezina dela eskubide horiei edozein kalte eragitea –bai delituaren, bai mendekuaren bitartez ere–.

Ferrajoliren iritziz, Zuzenbide Penalaren helburua era horretan ikuskatuz bakarrik izango da posible Estatuaren zigortzeko ahalmena bidezkatzen duen doktrina egoki bat formulatzea eta, aldi berean, ahalmen horren mugak definitzea. Honela, sistema penal bat justifikaturik egongo da, baldin eta ekidin dezakeen indarkeria ororen batura –delituak, mendekuak eta zigortze arbitrarioak barne– handiagoa bada ekidin ezin diren delituen eta hauentzat aurreikusita dauden zigorren batura baino. Agerian dago ezinezkoa dela kalkulu hau egitea. Dena den, zigor penala bidezkotua geratzen da gutxieneko kalte bezala –baina bakarrik benetan *gutxienekoa* bada, hau da, gainontzeko erreakzio ez juridikoekiko arbitrarotasun eta kaltegarritasun maila baxuagoa badu–. Are gehiago, Estatuaren zigortzeko ahalmenaren monopolioa gero eta bidezkotuagoa dago, zenbat eta baxuagoa izan Zuzenbide Penalaren *anarkia zigortzailearekiko* kostua.

Ferrajolik proposatzen duen eredu bidezkotzaileak arestian aipaturiko baldintza guztiak betetzen ditu: lehenik eta behin, Zuzenbide Penalaren helburu bakartzat aurrezaintza orokor negatiboa hartzen bada –bai delituen aurrezaintza, eta bai zigor informalen aurrezaintza ere–, Zuzenbide eta moralaren arteko nahasketa ekiditen da –gogoan izan doktrina ordaintzaileek eta zuzentzaileek nahastu egiten zituztela–. Era horretan, gainera, auto-legitimazio moralista zein naturalista ekidingo liriateke. Ikuskera honek “zergatik debekatu?” eta “zergatik zigortu?” galderei erantzuna ematea baimentzen du, debekuei eta zigorrei bi helburu desberdin atxikiz. Debekuaren helburua, desbideratzen ez den gehiengoaren ongizate maximoa bermatzea litzateke, eta zigorrarena, aldiz, desbideratzen den gutxiengoaren ondoez edo kalte minimoa. Bi helburu hauek arbitrarotasuna mugatzearen eta gizartean indarkeria gutxitzearen helburu orokorraren baitan ulertu behar dira.

Gainera, Ferrajoliren ereduaren arabera, zigorra, bere izaera hertsatzaile eta samingarriagatik, gaitz bat dela onartzen da, eta ezin da bergizarteratze edo zuzentze helburu filatropikoekin estali. Eta, gaitz bat den heinean, zigor penala soilik bidezkotu ahal izango da baldin eta mendekuak eta beste erreakzio sozialek baino kalte txikiagoa suposatzen badu, eta baldin eta delitugilea, zigor penalaren bitartez, zigor informal, ez proportzional eta aurreikusezinak pairatzetik aske geratzen bada. Are gehiago, zigorraren helburu utilitariora modu honetan ulertzen bada, gizabanakoa ez da arrotzak zaizkion beste asmo batzuk lortzeko bitarteko bihurtzen, eta, era honetan, posible bihurtzen da Kantek aurrezaintza doktrinei egiten zien kritikari erantzuna ematea.

Argudio hauekin, Ferrajolik aurrea hartzen die doktrina abolizionistei. Izan ere, doktrina hauek Zuzenbide Penalaren kostuak azpimarratzen badituzte, Ferrajoliren ereduak anarkia zigortzaileak ondoriozta ditzakeen kalte handiagoak nabarmentzen ditu, gaitz hauek bi motatakoak izanik: alde batetik, edozein kalte edo irainen aurrean eman daitekeen erreakzio basati eta kontrolrik gabekoa, eta bestetik, gizartearen diziplinazko erregulazioa. Azken honek –delituak eta hauen kontrako erreakzioak ekiditeko asmoz zigorra baino bitarteko eraginkorragoez balia daitekeen arren–, gehiago murriztuko luke guztion askatasuna ziurrenik.

Azter ditzagun bi alternatiba abolizionista horien baitan aurki daitezkeen azpi-alternatibak, ondoren, Ferrajoliren ereduari jarraiki, “Zuzenbide Penal minimoa” deritzona justifikatu ahal izateko.

6. Lau alternatiba abolizionisten aurrezaintza penala. Indarkeriaren eta boterearen minimizazioa

Zuzenbide Penalarekiko alternatiba bezala, gizartea kontrolatzeko lau sistema posible aurkezten ditu Ferrajolik. Hauek, neurri batean elkarren artean bateragarriak izateaz gain, abusuaren eta arbitrarotasunaren kontrako bermerik ez izatea dute ezaugarritzat.

Gizarte-kontrol basatiaren sistemak ordenamendu arkaiko guztietan gauzatu izan dira; hauetan, kaltearen aurreko erreakzioa zigor penalaren eskuetan utzi ordez, mendeku indibidualaren edo familiarraren eskuetan uzten da. Hauen adibideak ditugu odolaren mendekua, “faida” (bereziki krudela den mendeku pribatua), dueluak, “gidringildoak” (zuzenbide germaniarrean, gizaki askeak, giza-hilketa burutu ondoren, hildakoaren sendiari ordaindu beharrekoa, haien mendekutik kanpo geratzeko). Adibide hauetan guztietan, indartsuenaren legearentzako esparruak antzematen dira.

Estatu-kontrol basatiaren sistemak. Hauek bai ordenamendu primitibo despotikoetan, bai ordenamendu moderno autoritarioetan erabili izan dira. Hauen ezaugarria da zigorra zehazten duenaren interesen arabera prozeduraren bitartez aplikatzen dela zigorra, kondenatua babestuko lukeen inongo bermerik gabe.

d) *Diziplinazko gizarte-kontrol sistemak* edo auto-erregulatuak. Hauek ere talde primitiboetan ageri dira, baina, oro har, komunitate ideologizatuetan edo izaera etiko sendoa dutenetan. Sistema hauen ezaugarri dira auto-zentsura moduan gauzatzen diren konformismo zurrinak eta begirada kolektiboen, polizia moralaren, demonizazio publikoen eta beste hainbat faktoreen presioa.

e) *Diziplinazko Estatu-kontrol sistemak.* Produktu modernoak dira, eta, Ferrajoliren aburuz, etorkizunera begira arrisku bat suposatzen dute. Hauen ezaugarriak poliziaren funtzio prebentiboa eta zaintza teknika osoak dira, polizia ezkutuarien, erregistroen sistema informatikoen eta ikus-entzunezko kontrolaren bitartez gauzatzen direnak. Sistema hauen arriskua, gaur egungo demokrazietan ezkutuki bideragarriak izatean datza. Izan ere, dagoeneko ez da beharrezkoa tankeak eta polizia kaleetara ateratzea delituak murriztu ahal izateko, egungo teknika informatiko eta telematikoen, gizartearen gobernatze politikoaz gain, kontrol sarkor bat baimenduko bailukete (komunikazioak kontrolatuz, lantegi edota kaleetan kamarak jarritz...). Honelako sistema bat bateragarria da, gainera, arriskutsutzat jotzen diren gizabanakoentzako neutralizazio neurriekin.

Aurreko lau sistema hauekiko esan liteke Zuzenbide Penal guztion askatasuna bermatzen duen kontrol teknika bat dela, gizabanako bakoitzari, penaren truke, legea hausteko aukera fisikoa uzten diona. Argi dago debeku eta zigor penalek baimendu egiten dutela askatasuna murriztea, baina murriztapen hori, zalantza izpirik gabe, aurrezaintza polizial hutsak –agian aurrezaintza bereziarekin bateratuz– lekarkeena baina askoz txikiagoa da. Honen arrazoia zera da: zigor penalak delitugileen askatasuna besterik ez duela mugatzen –Zuzenbide Penalaren eskuhartzea delituaren ondoren gauzatzen den heinean–, eta aurrezaintza polizialak, aldiz, hiritar guztiona mugatzen duela -*ex ante* edo aurretiazko aurrezaintza bat delako, etorkizuneko delituak ekiditera zuzendua–.

Nabarmendu beharra dago Zuzenbide Penalak ez duela askatasun fisiko edo objektiboa soilik bermatzen, delitua burutu edo ez burutzearen artean erabakitzeke; askatasun moral edo subjektiboa ere bermatzen du, zeina azaldutako hirugarren eredu abolizionistan ezinezkoa litzatekeen. Izan ere, zigor penala ez da kontzientziak homologatzeko edota grin eta nahi pertsonalak suntsitzeko tresna bat. Zigor penal formalizatuak pertsonaren duintasuna bermatzen du, indarrezko sozializaziotik eta estigma edota zentsura moraletatik babestuz. Gainera, delitugilearen umiliazio publikoa bilatzen zuten zigorrekiko alternatiba bat da –adibidez, aintzinako “gogna” delakoarekiko, zeinaren bitartez kondenatuari burdinezko koilare bat ezartzen zitzaion lepoan, era horretan gaitzespen publikoa jasatera behartuz–, eta Zuzenbide Penal modernoaren laikotasuneranzko joera iluminista islatzen du.

Beraz, nahiz eta abolizionismoaren oinarrian dauden pentsamendu humanitario eta askatzaileak zalantzan jartzen ez diren, abolizionismoa utopia hutsa da, eta utopia erregresibo bat gainera, gizarte edo Estatu “on” baten auresuposamendu irrealen oinarritzen dena. Zuzenbide Penalak, gainera, alternatiba progresista bat suposatzen du ikuskera horrek suposatuko lukeen zaintza edota zigor modu ez-erregulatu edo auto-erregulatuekiko, zalantzatrik gabe.

7. Praxi abolizionista eta utopia garantista

Aipaturiko lau sistema abolizionisten eta Zuzenbide Penalaren arteko bizikidetzak neurri batean errealitate bat da, oinarritzko eskubideen babesa definitzen eta bidezkoak duten bermeen multzoa bortxatzen edo errespetatzen ez den heinean. Hori, Zuzenbide Estatu Estatu estra-legal edo polizial bihurtzen denean gertatzen da. Izan ere, Ferrajoliren esanetan egungo ordenamendu juridikoetan gauzatzen ari den praktika bat zigorraren abolizioarena da, eta honen ordez kontrol baliabide estra-penalaren aplikazioa ari dela bidezkoak. Hori, autorearen iritziz, salatu beharreko fenomeno bat litzateke, sistema zigortzaile modernoak –kutsadura polizialari esker eta bermeen salbuespenezko bortxaketei esker– penalak ez diren kontrol eredu gero eta informalagoetarantz ari baitira zuzentzen. Honela, Ferrajolik nabarmentzen du Italian 80ko hamarkadan kartzeletan barneratuta zeudenen $\frac{3}{4}$ epaiketaren zai zeudela. Beraz, espetxealdi prebentiboa zigor bihurtu dela esan liteke, estigmatizazio publiko moduko bat, eta kartzelek, aldi berean, garai aurremodernoan zuten zaintza izaera berreskuratu dutela. Hori gutxi balitz, segurtasun neurriek, aurrezaintzako eta ordena publikoa mantentzeko neurriek, eta baita poliziaren eskuetan dauden kautelazko neurriek ere, azpisistema zigortzaile berezi bat osatzen dute. Izan ere, Ferrajoliren esanetan, bi azpisistema penal eta prozesal leudeke, elkarrekiko autonomoak eta paraleloak direnak. Bata, gero eta gutxiago bada ere, Zuzenbide Estatuaren garantia klasikoen menpe legoke (legaltasun printzipioa, errugabetasun printzipioa, erantzukizun pertsonala, epailea hirugarren objektiboa izatea, epaiketa kontraesankorra...). Besteak, aldiz, ez litzateke garantia horiek izango, eta segurtasun publikoari begiratuko lioke soilik –nahiz eta lehenengo sistema bezain gai izan pertsonen askatasunean esku hartzeko–.

Beraz, esan liteke egunotan dugun arazo penal larriena Zuzenbide Penalaren krisia dela, Zuzenbide Penala gainontzeko kontrol era informaletatik bereizten den berme sistema bezala ulertuta. Are gehiago, gaur egun utopiak ez lirateke Zuzenbide Penalarekiko alternatibak izango, Zuzenbide Penala bera eta bere bermeak baizik. Abolizionismoa ez da utopia, garantismoa baizik. Arazoa, beraz, berme penal eta prozesalean datza, hau da, indarkeria zigortzailea gutxitzeko eta hiritar guztien eskubideen babesa maximizatzen direnak barne– teknika egokietan. Multzo honek guztiak osatzen du, hain zuzen ere, Zuzenbide Penala bidezkoak duen helburua.

8. Bidezkoak baldintzatuak, bidezkoak baldintzak eta bermeak. Garantismoa deslegitimazio doktrina bezala

Orain arte esandakotik ondorioztatzen da Zuzenbide Penalaren justifikazioaren eta berme penalaren artean elkarrekotasun argi bat dagoela. Izan ere, sistema penal bat bidezkoak egongo da baldin eta gizarteko indarkeria arbitrarioa gutxitzea lortzen badu. Eta, helburu hau lortu ahal izateko, sistema horrek Zuzenbide Penal minimoaren berme penal eta prozesalak errespetatu beharko ditu –beraz, helburu hori aldarrikatuz ezingo lirateke indarkeriazko bitartekoak edo bitarteko zapaltzaileak bidezkoak. Baina, batez ere, agerian geratzen da Zuzenbide Penala ez dela delituak ekiditeko eta indarkeria arbitrarioa gutxitzeko dagoen bitarteko bakarra, eta ezta garrantzitsuena ere. Izan ere, sistema politiko baten aurrerapena desbideraketak onartzeko bere gaitasunean datza, haiek tentsio eta disfuntzio sozialen ondorio direla ulertuz, eta haien oinarrian dauden arazo materialak ezabatzen saiatuz. Perspektiba honetatik abiatuz, posible litzateke zigor askatasun-gabetzailea ezabatzea, zeinak, samina eragiteaz gain, pairatzen duena delitu gehiago burutzera bultzatzen dezakeen. Baina Zuzenbide Penalaren murrizketa hau posible izango da soilik baldin eta aplikatzen diren neurriek Zuzenbide Estatuaren bermeak errespetatzen badituzte. Hau da, etorkizunean gizarte perfektu bat egongo balitz ere –zeina ez den litekeena–, deliturik gabe eta hura erreprimitzeko beharrik gabe, Zuzenbide Penalak, bere berme sistema konplexuarekin, bere horretan jarraitu beharko luke, delitu bat egongo balitz erreakzionatzeko prest.

Azken batean, Ferrajolik proposatzen duen eredia Zuzenbide Penal minimoarena da, zeinak hiru ezaugarri dituen: eskuhartze penala ahalik eta gehien murriztea, bere bermeak ahalik eta gehien zabaltzea, eta beste hertsapen moduak baztertzea. Honetarako, Zuzenbide Penalaren helburua, desbideratzen ez den gehiengoaren ongizate maximoaz gain, desbideratzen den gutxiengoari ahalik eta kalterik txikiena eragitea ere izango da, hauek beste gaitz handiagoetatik babestuz. Bigarren parametro hau, sarritan alde batera uzten den ikuspegi batekin erlazionatuta dago, alegia, zigorren kostu sozialarekin eta, orokorrean, delituak ekiditeko bitartekoekin. Izan ere, askotan, aurrezaintzaren aitzakiarekin eragiten den indarkeria kopurua, ekidin nahi den indarkeria baino handiagoa da. Hiritarren segurtasuna eta askatasuna etengabe mehatxatzen dira, delituez gain, zigor despotiko eta gehiegizkoengatik, espetxeratze eta prozesu azkarrengatik edota poliziaren kontrol abusibo eta arbitrarioengatik. Hitz batean, justizia penala deitzen dugun harengatik, zeinak, Historian zehar –Egiptotik hasi eta Inkisizio Santua, nazismoa, stalinismoa eta gaur egungo hirugarren munduko hainbat eta hainbat erregimen militar faxista behatuta–, burutu izan diren delitu guztiek baino samin handiagoa eragin duen. Dena den, ordenamendu europar modernoetan berme penal eta prozesalen egungo krisiaren eraginez antzematen den arbitrio polizial eta judizialak problematikoa bihurtzen dute Zuzenbide Penalaren kostu eta etekinen arteko balantzea, eta baita bere bidezkotzea ere.

Ferrajolik proposatutako eredia jarraitzearen lehen ondorioa da ez duela Zuzenbide Penalaren bidezkotze abstraktu bat suposatzen. Aitzitik, sistema penal konkretuak bakarrik bidezkotzea baimentzen du, betiere garatu den Zuzenbide Penal minimo eta garantistaren ereduarekin bat badatoz. Beraz, parametro hauek ez dira legitimazio eredu gisa bakarrik baliagarri, baizik eta, batez ere, deslegitimazio tresna bezala.

Bigarren ondorio gisa, esan daiteke bidezkotze oro erlatiboa dela historikoki eta espazialki, eta mintzagai den ordenamenduaren zibilizazio mailaren arabera. Gizarte barbaroetan indarkeria maila altua den bitartean –bai delituei dagokienez, eta baita hauekiko erantzunei dagokienez ere–, gizarte garatu eta toleranteetan, indarkeria sozial gutxiago dagoen heinean, ezin izango da Zuzenbide Penal zorrotz bat bidezkotu.

Hirugarren ondorioa honakoa da: eredu honen arabera, onartu egiten dela ordenamendu bateko arau, erakunde edota praktika zehatz baten bidezkotze edo deslegitimazio oso zein partziala. Dena den, eredu honek justifikazio eta deslegitimazio partzialerako eskaintzen dituen irizpideak dira bereziki interesgarriak suertatzen direnak. Irizpide horiek, esan bezala, arbitrariotasunaren, gehiegikerien eta akatsen kontrako berme penal desberdinak lirateke. Haiek teorikoki jorratzea, Zuzenbide Penal garantistaren teoriaren eginbehar garrantzitsuena litzateke, eta, kasu horretan, bidezkotze doktrina normatibotzat eta, aldi berean, sistema penal konkretuen deslegitimazio doktrinatzat hartua izan daiteke.

Testu moldaketa: Jon Mirena Landa eta Enara Garro
Itzulpena: Enara Garro